EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**OSASUN SAILA**
Administrazio eta Finantzaketa
Sanitarioko Sailburuordetza
*Aseguramendu eta Kontratazio*
*Sanitarioko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SALUD**
Viceconsejería de Administración y
Financiación Sanitarias
*Dirección de Aseguramiento*
*y Contratación Sanitarias*

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 1a

Aitor Alonso jauna
Presidentea-Presidente
**G**IZARTE **H**EZITZAILEEN **E**USKADIKO **E**LKARGOA
**C**OLEGIO DE **E**DUCADORAS Y **E**DUCADORES DEL **P**AÍS **V**ASCO

Alonso jauna :

Atsegin handiz jakinarazten dizut idazki hau, Lehendakariari 2020ko martxoaren 20an bidalitako gutun atseginari erantzunez.

Zure gutunaren edukiak gizarte eta osasun arloei dagozkien osagaiak dituenez, erantzun honen testua Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak eta Osasun Sailak elkarrekin idatzi dute.

Ordezkatzen duten gizarte-hezitzaileen kolektiboaren kezka partekatzen dugu. Esku hartzen duten pertsona guztientzat, baita zuentzat ere, behar diren babes-neurriak bermatzeko beharra, funtsean, osasun-ingurunean behar diren berberak dira. Ikuspegi horretatik, osasun-materiala eskuratzeko egiten ari den ahaleginaren helburua ere bada zuk aipatzen dituzun esku hartzeko esparru guztien eskariari erantzutea. Ahalik eta lasterren erantzutea espero dugu, Osasun Sailaren, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta udal eta foru erakundeen artean jarduketak koordinatuz, aipatzen dituzten baliabideak eskumenei lotuta baitaude.

Kutsatzeko aukeraren aurrean esku hartzeko protokoloei dagokienez, Osasun Sailak eta Osakidetzak eremu soziosanitariorako ezarri dituzten protokoloak eguneratzen eta zabaltzen ari gara, bai zentro soziosanitarioetarako, bai egoitza-zentroetarako (1)

Estimado Sr. Alonso:

Me es grato trasladarle este escrito, en respuesta a su amable carta enviada al Lehendakari de fecha 20 de marzo de 2020.

Ya que el contenido de su carta tiene componentes correspondientes a los ámbitos social y sanitario, el texto de esta respuesta ha sido redactado conjuntamente entre el Departamento de Empleo y Políticas Sociales y el de Salud.

Compartimos la preocupación del colectivo de educadoras y educadores sociales al que representa. La necesidad de garantizar las medidas de protección precisas para todas las personas con las que ustedes intervienen, así como para todas ustedes, son básicamente las mismas que se precisan en el entorno sanitario. Desde esa perspectiva, el esfuerzo que se está realizando para adquirir el material sanitario también tiene por objeto atender la demanda de todos los ámbitos de intervención a los que usted se refiere. Esperamos poder atenderla a la mayor brevedad posible, coordinando las actuaciones entre el Departamento de Salud, el de Empleo y Políticas Sociales y con las entidades municipales y forales de las que, en su caso, dependen competencialmente los recursos que citan.

Por lo que se refiere a los protocolos de intervención ante la posibilidad de contagio, estamos actualizando y difundiendo los protocolos que desde el Departamento de Salud y Osakidetza han establecido para el ámbito sociosanitario, tanto para centros sociosanitarios como para centros residenciales[1].

1 Recomendaciones, medidas y normas de actuación para centros sociosanitarios y residenciales:
- http://www.euskadi.eus/web01-a2zesosa/es/contenidos/documentacion/doc_sosa_prot_centrs_sociosani/es_def/index.shtml
- http://www.euskadi.eus/web01-a2zesosa/es/contenidos/documentacion/doc_sosa_prot_centrs_sociosani/es_def/index.shtml

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 92 51 – Fax 945 01 93 01 – E-mail: secfinan-san@euskadi.eus

Gainera, Eskubide Sozialen Ministerioak eta Agenda 2030ek Etxeko Laguntza Zerbitzuari(2) eta etxerik gabeko(3) pertsonei buruz emandako gomendioak zabaltzen ari gara.

Tratamendu eta arreta mediko egokiei dagokienez, uste dugu bermatuta daudela Osakidetzaren arretari esker eta Osasun Sailak zein inplikatutako gainerako administrazioak hartzen ari diren neurriei esker, pertsonen osasun-egoeran eta bizi diren zentro edo baliabideetan gertatzen ari diren aldaketen arabera.

Azkenik, gizarte-hezitzaileen kolektiboa beren esperientzia eta ezagutza profesionala egokiak diren batzorde edo espazioetan sartzeari dagokionez, eskertzen dugu haien eskaintza, eta, inguruabar horietan edo hurrengoetan beharrezkotzat joz gero, formalki eskatuko zaie.

Eskerrik asko zure erakundeari.

Adeitasunez.

Además, estamos difundiendo las recomendaciones del Ministerio de Derechos sociales y Agenda 2030 en relación al Servicio de Ayuda a Domicilio[2] y a las personas sin hogar[3].

En cuanto a los tratamientos y atención médica adecuados, entendemos que están garantizados gracias a la atención de Osakidetza y las medidas que tanto el Departamento de Salud como el resto de administraciones implicadas están tomando en función de los cambios en la situación sanitaria de las personas y los centros o recursos en los que residen.

Por último, respecto a la incorporación del colectivo de educadoras y educadores sociales en aquellos comités o espacios en los que su experiencia y conocimiento profesional sean adecuados, agradecemos su ofrecimiento y, en caso de considerarlo necesario en estas o futuras circunstancias, se les solicitará formalmente.

Muchísimas gracias a su organización.

Atentamente

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

José Luis Quintas Díez

SUBDIRECTOR DE ASEGURAMIENTO Y CONTRATACIÓN SANITARIAS

ASEGURAMENDU ETA KONTRATAZIO SANITARIOKO ZUZENDARIORDEA

[2] https://www.imserso.es/InterPresent2/groups/imserso/documents/binario/rec_gestores_sad_covid-19.pdf

[3] https://www.imserso.es/InterPresent2/groups/imserso/documents/binario/rec_gestores_sinhogar_covid-19.pdf